



## Pil-pilean

Soraluzeko hilabetekaria  
2018ko iraila · 343. alea

TOKIKOM

**Bizitzeko  
prest**





## AURKIBIDEA

- 4 Bote** prontuan Edurne Burgoa
- 6 Begira** Dolores Ordaxek 100 urte
- 8 Zer berri** Aktualitateko albisteak
- 14 Argazki bidez** Mesedeetako jaiak
- 16 Erreportajea** Euskaraldia
- 22 Kirola** Urban Trail, Sora, pelota
- 24 Kultura** Antzerkia, filmak eta irakurle-kluba
- 26 Sakonean** Ilde Perez
- 28 Gure artistak** Mikel Ostolaza
- 29 Zerbitzuak** Zorion-agurrak, oroitzak, iragarki laburrak...

## Iritzia

- 3 Neuretik** Iñaki Iñurrieta *Eskilarapeko ispiritua*
- 16 Gutunak** Hekimen, Aspanogi
- 16 Hausnarketa** Pinuak gaixorik
- 17 Puntua** Paula Alonso *Gerokoak*
- 17 Zir(r)ika** *Pinuaren testamentua*



**Pil-pilean**  
herri komunikabidea

Aldizkaria **ASKOREN ARTEAN** egiten dugu. Bidali zure iritzia, informazioa edo proposamenak:  
aldizkaria@pilpilean.eus • 605 706 086

### Argitaratzailea

Pil-pilean Euskaldunon Elkarte  
Errabal kalea 15-1, PK 27  
20590 Soraluze  
Telefonia 943 75 13 04

### Erredakzioa

Ubane Madera  
ubane@pilpilean.eus  
Egoitz Unamuno 605 706 086  
egoitz@pilpilean.eus

### Publizitatea

publizitatea@pilpilean.eus  
**Diseinua** Goiena,  
Oier Larreategi (moldaketak)  
**Azala** Fernan Oregi

### Maketazioa

Oier Larreategi  
**Zuzentzailea** Leire Ginea  
**Inprimategia** Gertu Koop.  
**Banaketa**  
Pil-pilean Ekoizpena

### Lege Gordailua:

SS-537-2000

Tirada: 2.100 ale

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA**

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako  
Sailburuordetzak) diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Abundia



**SORALUZEGO  
UDALA**

# Eskilarapeko espiritua



**Iñaki  
Iñurrieta**

Batzuk berba-jario errazagokoak gara, beste batzuk motelagoak, baina seguru den-denoï pasatu zaigula noizbait norbaitekin eztabaidan jardun eta gero, arrazoirik onenak gerora bururatzea, eztabaida amaitu eta gero. Frantsesez bada esamolde bat hori izendatzeko: *l'esprit de l'escalier*, eskilarako espiritua. Zera esan nahiko balitz bezala: eztabaida amaitu eta gero, eskilarak jaitsi bitartean etortzen zaizkiela erantzunik zorrotzenak espiritu horrek jotakoei. Bitxi samarra ere bada: zergatik agertzen ote dira eskilarak esamolde horretan? Beharbada, frantsesek eztabaidak goian egiten dituztelako beti, auskalo.

**“Seguru den-denoï pasatu zaigula noizbait norbaitekin eztabaidan jardun eta gero, arrazoirik onenak gerora bururatzea, eztabaida amaitu eta gero”**

Deformazio profesionala izango da, akaso, baina esamolde horren berri izan nuenean, hitzetik hortzera etorri zitzaidan euskarazko ordain libre samar bat: sasoia joan eta gero. Izan ere, sasoia joan eta gero bururatu ohi zaizkigu askotan erantzunik onenak, arrazoirik biribilenak. Gero, gogoratu zitzaidan Sasoia joan da gero dela Uztapidek bere bertso-liburu bati jarritako

izenburua. Jakina, hark beste esanahi bat ematen dio hor sasoi barbari, baina, niri, eskilarako spirituarena aurkitu berritan, grazia egin zidan paradoxak: nork eta hark, berbak bata bestearen atzetik pentsatu ahala eta bertatik bertara josten maisurik handiena izandakoak, zer eta izenburu hori jarri bertso-liburuari.

Nik uste frantsesei eskilarapekorik ez dutelako edo eskilarapekoa zer den ez dakitelako gertatzen zaiela hori. Jakingo balute eskilara igotzen hasi aurretik trago batzuk jo eta espiritua ondo piztuta helduko lirateke gora, demasak botatzeko puntu-puntuan, baita frantsesez bertsoan egiteko ere, horren beharrean fortunatuz gero.



# Edurne Burgoa

TESTUA: **UBANE MADERA** ARGAZKIA: **FERNAN OREGI**

Edurne Burgoa (Ondarroa, 1967) da datozen hiru urteetan Sorraluze BHI ikastetxeko zuzendari berria. Zortzi urtez institutuko ikasketa-burua izan ondoren hartuko du zuzendari kargua. Orain arteko zuzendari Elena Imaz ikastetxez aldatu zen. Gauzak horrela, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntzako ikuskaria bertaratu eta Edurne Burgoa izendatu zuen zuzendari.

## Zergatik zu?

Ikastetxea ezagutzen nuelako. Erantzun nion prest nengoela irakasle berriei laguntzeko. Baina esan zidan neuk izan behar nuela zuzendari, eta funtzionarioak garenez... azkenean, neu.

## Zela egingo diozu aurre?

2004tik nago hemen; plazarekin etorri nintzen. Gustura nago: ikastetxe txikia da, aniztasun handikoa eta uste dut gauza politak egin daitezkeela. Gainera, behartuta nago zuzendari izatera, baina behin egoera onartuta, gauzak ondo egiten ahaleginduko naiz. Ikastetxe hau maite dut, baina gogoa ere badaukat gorputz hezkuntzako eskola gehiago ematera bueltatzeko.

## Izan ere, zuk IVEF egin zenuen, ezta?

Bai, soin hezkuntzan lizentziaduna naiz. Gustuko dudan zerbait da, eta urruntzen nabil hortik, zeren zuzendaritzak lan administratibo ikaragarria dakar. Baina hau tokatu zait eta saiatuko naiz ondo egiten.

## Zuzendari berriaz aparte, institutuak badu beste berrikuntza garrantzitsua aurten: funtzionamendu berria, ordutegi aldaketa tarteko.

Bai, *Hauspoa* proiektuan sartzea eskatu genuen: 2013an abiatutako proiektua da, 28 ikastetxek eman zuten orduan izena eta orain beste 35 bat ikastetxek. 50 ikastetxetik gora gaude ja proiektu horretan. Uste dut hori izango dela ikastetxeen etorkizuna.

## Zer da Hauspoa?

*Hauspoa* proiektuak ematen du aukera ikastetxearen ordutegia gestionatzeko eta ikastetxeko espazioa ikasleei zabaltzeko, eta zelanbait herriari ere. Horrek autonomia ematen digu.

## Zein modutara?

Eskola ordutegia da 08:15-14:15era bitartekoa, eta 15:00etan hasten da *Hauspoa*. Ostiraletan izan ezik, gainerako egun guztietan zailtasunak dituzten ikasleei laguntza ematen zaie, indartze-saioak ematen ditugu. Horretaz gain, irakasleek lagundutako ikasketa gunea ere bada 15:00etatik aurrera: gazteek bertara ikastera etortzeko aukera dute, edo Internet erabiltzera, talde lanak egitera... Egunero 16:30ak arte erabil dezakete gune hori.

## Gainera tailerrak ere badituzue, ezta?

Asteazkenetan. Garrantzitsua iruditzen zaigu herriko baliabideak erabiltzea. Keixeta guraso elkartekoekin, kirol eta kultura ordezkariekin... batzartu gara gaia lantzeko. Adibidez, udan egiten den Robotika Tailerra hemen emango genuke, bertako irakasle batekin. Helburua da herriko jakintza partekatzea eta eskola herrira gerturatzea. Ideiak aztertzen gabiltza. Eta aurten *Bizikasi* ere landu behar dugu: bullingari eta jazarpenari aurre egiteko protokoloa. Orain arte ere asko landu dugu gaia, beraz, bide horretatik segituko dugu.

## Zergatik eskatu zenuen Hauspoa proiektuan sartzea?

Akaso ni kirol munduan mugitzen naizelako-edo, oso garrantzitsua da niretzat aisialdia, bestelako zaletasun batzuk gestionatzeko aukera izateko: kirola, musika, dantza... Orain, gazteek ez dute horretarako denborarik. *Hauspoa*rekin, ikasle on batek, nahi badu, 14:15ean bukatuko du eta aukera dauka denbora kudeatzeko nahi duenerako. Uste dut gazteek ez ezik, gizarteak berak ere irabaziko lukeela kirol, kultura... esparru askotan. Gazteek ikasiko dute euren denbora librean gestionatzen, eta kompetentzietan ere asko irabaziko dute. Orain arte horrela ibili diren ikastetxeetan eskolako emaitzak hobetu egin dituzte.

## Institututik irtengo gara, izan ere, esan duzun moduan, kirol munduan mugitzen zara... futboleant, ezta?

14 urte daramatzat Athleticeko emakumezkoen futbol-egituran. Gehienetan talde nagusiarekin aritzen naiz haien bigarren entrenatzaile eta prestatzaile fisiko modura. Orain bi denboraldi aldaketa eskatu nuen, estu nengibilelako horrenbeste bidaiarekin. Gu ari gara Athleticen emakumeekin mutilekin bezala egiten: egitura oso bat, harrobia eta beste. Iaz nesken infantil taldea osatu eta bertako entrenatzaile izan nintzen. Baina nagusien mailako nesken bigarren taldeko (B taldeko) entrenatzaileak taldea utzi eta neuri deitu zidaten. Bigarren mailan jokatzeko du bigarren taldeak eta orain, hor gaude. Gustuko lana dut, eta militantzia puntua ere badu. Emakumezkoen futbolaren bilakaera guztia ikusi dut-eta barru-barrutik.

## Eta? Zela dago kontua?

Asko aurreratu da, baina asko dago egiteko. Hala ere, bagoaz aurrera.

## Institutura bueltatuz, zein da Sorraluzekoaren erretratu?

Baditugu 159 ikasle eta 23 irakasle. 12-16 urte bitarteko hezkuntza eskaintzen dugu. Ikasgai eta gai batzuk proiektuak lantzen ditugu. Horrez aparte, guretzat IKTak garrantzitsuak dira, ze gazteak horrekin bizi dira, eta ezin gara hortik urrundu. Sare Hezkuntza Proiektua da hori.

***“Ikastetxe txikia  
da, aniztasun  
handikoa eta  
uste dut gauza  
politak egin  
daitezkeela”***

EDURNE BURGOA





## 100 urte

ARGAZKIA: EGOITZ UNAMUNO  
TESTUA: UBANE MADERA

Jatorriz Valladolideko San Pedro de Latarce herrixkakoa da Dolores Ordax, hamaika anai-arrebako familia bateko kidea. 1965ean etorri zen Soraluzeza, berrogeita zazpi urterekin: "Hemen lanerako eta bizitzeko egoera hobea zen. Gure herrian ez genuen txakur txiki bat ere, nekazaritzatik bakarrik bizi ginen eta". Aurretik, bere anaia eta semea etorri ziren Soraluze lanera eta beranduago etorri zen bera, gainerako bi seme-alabekin batera. Irailaren 7an 100 urte bete zituen, eta senideak inguruan zituela, oroigarria jaso zuen Soraluzeko Udaleko eta Itxaropena elkarteko ordezkarien eskutik.

100 urte dituen udalerriko bigarren bizilaguna da Dolores Ordax. Inazio Ernabide da bestea, 101 urte ditu hark. Orokorrean, esanguratsua da udalerriko adin altuko bizilagunen kopurua: 310 soraluzetarrek 80 urtetik gora dute. Horien artetik 201 dira emakumeak eta 109 gizonak.





# Gaixotasunak jota daude Soralezeko pinuak ere



Batez ere Irure bailarako pinuak daude kaltetuta.

Soraluzeko pinuak gaixo daude, Gipuzkoako pinu gehienak moduan. Gorrituta daude, *Lecanosticta acicola* onddoak jota. *Intsignis* (*pinus radiata*) eta *laricio* pinuari eragiten dio onddo horrek, eta Soraluzen dauden *pinus radiata* motako pinudiak hartuta daude.

Halaxe esplikatu du Manuel Olariagak, Soralezeko, Elgoibarko, Eibarko eta Mendaroko basozainak: “Gehiena dago Irure auzoan, hori dago iadanik erabat jota. Ernizketa inguruan 30 hektarea dago sei urteko pinuz beteta, eta denak gorritu dira. Beste aldetik, berriz, apur bat hobeto daude, gune batzuek berdetxoago daude, baina hori ere jota dago. Pinu zaharrak gehiago eusten dio gaixotasunari; gazteak, berriz, askoz ere azkarrago izorratzen dira. Hala ere, gehitxoago edo gutxixeago, pinu guztiak daude jota”.

## Bota egin behar

Irtenbide txarra dauka, gainera, arazoak: pinuak botatzea. Eta pinudi jabe asko dagoeneko badabilta zuhaitz horiek botatzen. Olariagak zera jakinarazi du: “Kaltetuenetatik

hasita, bota egin behar dira; egurrak balio duen bitartean pinuak kendu egin behar dira. Denborarekin ihartu egiten baitira eta orduan ez du batere balio egurrak. Dagoeneko toki batzuetan hasita daude botatzen, batez ere, Txurruka bailara horretan”.

## Berotasuna eta hezetasuna

Olariagaren arabera, pinuen gaitza lehenagokotik dator, baina orain gaiztotu egin da, zabaldu. Basozainak esplikatuakoaren arabera, udako klima bero hezeak lagundu egin dio bide horretan: “Onddo hori lehendik ere bazegoen, gertatzen dena da orain indarra hartu duela. Iaz, adibidez, Bergaran ez zegoen ezer, ezta Plazentzian ere. Olatua bezala dator izurritea, itsasotik gora. Aurtengo udan, 25-30 gradu egin du egunez, hezetasun handia izan dugu eta gauez 15 gradutik ez da jaitsi temperatura. Hori izan da, hain justu ere, onddo horren haztegia”.

Gauzak horrela, horrenbeste urtean pinuak estalitako mendia azaleratu egingo da datozen hilabeteotan, baita Soraluzen ere.

## %2,2ko igoera zergetan

Udalbatzarrak urrian egingo du hurrengo osoko bilkura, eta mahai gainean izango dituen gaien artean, Ordenantza Fiskalak aztergai izango ditu. Udal Gobernuaren proposamena da %2,2ko igoera orokorra aplikatzea zergeti, bestela esanda, KPIren araberrako igoera, ohiko hobariekin eta salbuespenekin.

## la 50 lagun, Esperientzia Gelan

Alzheimerraren gaineko hitzaldiarekin abiatu zuen ibilbidea sortu berri den Soralezeko Esperientzia Gelak. Estreinaldi indartsua izan zuen, Itxaropena elkarteko aretoa lepo bete zen-eta. Horrez gainera, oro har, Esperientzia Gelak izan duen matrikulazio kopuruarekin ere oso gustura daude antolatzaileak, Alkarri elkarteko kideak: “Kopurua oso handia izan da: ia 50 lagunek eman du izena”, esan zuen Alkarriko kide Juan Fernandezek. Urrian du hurrengo hitzordua Esperientzia Gelak: *Mihi puntan daukat. Eguneroko ahanzturerei aurre egiteko estrategiak* tailerra. Lau asteko tailerra izango da eta eguaztenero egingo dute. Bertan parte hartzeko derrigorrezkoa da Esperientzia Gelan matrikulatuta egotea. Urriaren 3an hasita, urriaren 10ean, 17an eta 24an izango dira eskolak, 17:00etatik 18:30ak arte. Parte hartzeko koaderno eta boligrafoa eraman behar dira.



# Hasi dira bisitak Dolmenen ibilbidean



Domekako bisitan parte hartu zuen taldea.

Domekan, irailaren 30ean, hasi ziren Dolmenen Ibilbidea ezagutzeko bisita gidatuak. Iaz ia 200 lagunek parte hartu zuen eta aurten arrakastatsu hasi dira: lehen bisitan 20 lagun izan ziren eta urriaren 7ko taldea beteta dago.

Urriaren 21ean (euskaraz), 28an (gaztelaniaz) eta azaroaren 4an (euskaraz) egingo dituzte hurrengoak. Doan dira, baina izena eman behar da, 657 79 46 77-ra deituta edo [info@begibistan.com](mailto:info@begibistan.com) helbidera idatzita.

Bisita gidatuak dira, hain zuzen, Dolmenen Ibilbidea balioan jartzeko ekintza-planaren ekimenetako bat. Beste hainbat jarduera ere iragarri zituen Iker Aldazabal alkateak.

Gertukoenetik hasita, asteotan hasiko dira Bergarako lurretan dagoen Kerexetaegia Hegoko trikuharria berreraikitzen, Aranzadi Zientzia Elkarteke, EHUKo eta UNEDeko adituen gidaritzapean.

Horrez aparte, urria-azaroan Irukurutzetako dolmena industen segituko dute Aranzadiko adituek, Jesus Tapia arkeologoaren gidaritzapean. Gipuzkoako trikuharrien artean handienetakoa da berau eta, Aranzadi elkartearen arabera, dolmen horren indusketa arkeologikoak ekarpen nabarmenak egin ditzake Plazentzia-Elosua

estazio-megalitiko osoa hobeto ulertzeko.

Indusketak aipatuta, Gizaburuagako trikuharriko indusketetako aurkikuntzak sailkatzen eta laborategian aztertzen segituko dute. Neolito garaiko eta Brontze Aroko aztarna ugari aurkitu zituzten, arbasoen ohituren gainean informazio garrantzitsua ematen duten piezak.

Bestalde, Dolmenen Ibilbidea “proiektu estrategikoa” dela azpimarratuta, Soraluzeko Udalak bertako lursailak erosten segitzeko asmoa azaldu zuten eta jakinarazi zuten Dolmenen Ibilbideko liburuxka berria editatu eta eskuragarri dagoela, besteak beste, Soraluzeko Udaletxean eta Debabarreneko Turismo Bulegoan.

Horren guztiaren berri emateko prentsaurrekoa egin zuten Debabarreneko Garapen Agentziaren egoitzan. Bertan izan ziren Bergarako, Elgoibarko eta Soraluzeko alkateak eta Jaurlearitzako eta Aranzadiko ordezkariak. Izan ere, aipatutako udalen diru-ekarpena handituta eta Jaurlearitzaren eta Diputazioaren diru-laguntzak baliatuta segituko dute Dolmenen Ibilbidea balioan jartzeko egitasmoek. 100.000 euro pasa inbertituko dituzte, hain justu.

## Haragi gisatu lehiaketa eta irteera

Hasi berri dugun hilabeterako bi hitzordu egin dituzte Itxaropena Erretiratuen Elkarteak.

Batetik, urriaren 10ean Aginaga Sagardotegira irteera egingo dute. 09:15ean Soraluzetik abiatuta, besteak beste, Ordiziako erretiratuen etxea, Tabakalera eta Donostia bisitatuko dituzte. Eta Aginagan bazkaldu eta gero, astirik izanez gero, Zarautzera bisita ere egingo dute. Izena emateko azken eguna urriaren 4a da eta prezioa, berriz, 28 euro (bazkide ez direnendako 40 euro).

### Haragi gisatu lehiaketa

Eta bestetik, urriaren 16an haragi gisatu lehiaketa egingo dute Itxaropena elkarteke terrazan. Asko jota zortzi bikotek parte hartu ahal izango dute bertan. 10:00etan hasiko da sukaldaritza lehiaketa, eta sariak eman ondoren, bertan prestatutakoarekin bazkaria egingo dute, 14:00ak aldera. Asko jota 104 lagunendako lekua dute bazkarirako. Lehiaketako parte-hartzaile guztiek jasoko dute otarra operari eta bikote irabazleak, berriz, otar berezia. Epaimahaiari dagokionez, Eguneko Zentroko ordezkariak osatuko dute.

### Kuota eta loteria

Bestalde, urriaren 4tik abenduaren 19ra bitartean kobratuko dute 2019ko bazkideza: 10 euro. Eta horrez aparte, aukera izango da Gabonetako loteriako 19.512. zenbakian 5 euroko partizipazioa eskuratzeko Beraz, guztira, 15 euro ordaindu beharko da.

# “Herri txiki infernu handi” Soraluzen

ETB1eko programa ezagunak Soraluze aukeratu du 2018-2019 denboraldian bisitatzeko. Orain dela bi aste inguru hasi ziren “kontu bategatik edo besteagatik interesgarriak diren soraluzetarren zerrenda” osatzen eta, orain, programan parte hartzea onartu duten guztien artean bederatzik edo hamar herritar aukeratu dituzte elkarrizketak grabatzeko.

Udalak jakinarazi duenez, grabatutakoa urriaren 18an proiektatuko dute Kiroldegiko frontoian. Bertan parte hartzeko sarrerak (debalde) datozen



Mikel Pagadizabal eta Zuhaitz Gurrutxaga.

egunetan jarriko dituzte eskuragai Kiroldegiko harreran.

# Senide eta lagunaren deia Donostiara joateko



Sebas Etxaniz eta Sabin Mendizabalen senide eta lagunak plazan.

Sebas Etxaniz eta Sabin Mendizabalen senide eta lagunak dei egin diete soraluzetarrei, urriaren 20an Donostian egingo den manifestaziora joan daitezen. *Orain presoak* lelopean eskatuko dute, “urruntze politikak eragiten duen sufrimenduari amaitzea, giza eskubideak errespetatuak direla ziurtatzea, legea betearaztea

eta bakerako zein elkarbizitzarako baldintzak sortzea”.

Manifestazioa Euskal Herriko Sare Herritarrak deitu du eta arratsaldeko 17:00etan abiatuko da Antiguoko tuneletik. Soraluzeko Sarek autobusak antolatu ditu herritik, eta txartelak eskuragai daude Batzokian, Bolian eta Arranoan.

# “Berba-potea” egunean



Egunean pintxo-pote berezia egingo dute Berbalagun egitasmoan diharduten herritarrek: “Berba-potea”. Kanean eta lagunarteko giroan hasiko dute ikasturte berria, lau haizetara iragarriz zabalik dagoela egitasmoan izena emateko epea.

“Egin jauzi” lema aukeratu dute aurtengo kanpainaren mezu nagusi moduan eta, hain zuzen, berbalagunen artera jauzi egitea proposatzen diote euskara praktikatu nahi duen guztiari. Izena emateko, idatzi [berbalaguna@pilpilean.eus](mailto:berbalaguna@pilpilean.eus) helbidera, edo jo Pil-pilean Euskaltzaleen Elkartera. Ezinbestekoa da gutxieneko ulermen-maila izena eman ahal izateko.

# Kukumixok 10 urte

Kukumixo aisialdi-taldeak aurtun 10 urte bete ditu, eta ospatzeko egun osoko jaia antolatu dute Uuriaren 27an. Beraz, umeendako jolasak, puzgarriak, antzerkia eta bestelakoak izango dira datorren hileko azkeneko zapatuan.

# Hastear Errabaleko lanak

Urrian hasiko dira Errebal kalearen 12. eta 29. atarien arteko zatia urbanizatzeko lanak, eta aurreikuspenen arabera bost hilabeteen egingo ditu lanok Construcciones Artzamendi S.A. enpresak. 238.079,6 euroko (BEZa barne) inbertsioa egingo dute Soraluzeko Udalak eta Ur Kontsorzioak lan horietan; helburua da udalerriko erdigunea dagoen modura, espaloia eta errepedea maila berean ipintzea, oinezkoei lehenasuna eman eta irisgarritasuna hobetuko duen plataforma bakarra eraikiz.

Urbanizazio lanak egitearekin batera, bota egingo dituzte Errebal kaleko 14. eta 16. etxeak. Hasierako asmoa zen etxeok botatzeko abutzua aprobetxatzea bazen ere, etxeetako tximinia eta ur-biltegi

banatan amiantoa aurkitu dute, eta ondorioz, Eusko Jaurlaritzaren baimen berezia behar da etxeok eraisteko. Orain, lan denak batera egin beharko dituzte.

Aipatutako lanekin batera, Zubi Nagusiko piboteak ere lekuz aldatuko dituzte, eta aprobetxatuko dute lur-azpiko ur-hodiak zaharberritzeko ere, baita autobus geltokiak lekuz aldatzeko ere (Errabalekoa Baltegiatara eroango dute eta SAPAkoa Olabarrenako etxeen ondora). Alkateak adierazi duenez, “obra konplikatua izango da, eta bost hilabeteke epea aurreikusi arren, azkenean, seguru aski, luzatu egingo da”. Udalak ez du jakinarazi oraindik, lanek irauten duten bitartean zela berrantolatuko duten autoen zirkulazioa Errabal kalean.

# Errefuxiatuak hausnarketagai



Unax Blanco eibartarrak Greziara heltzen diren errefuxiatuen bizi-baldintzez hitz egin zuen.

Errefuxiatuen gaia izan dute langai Hautsak Harrotzen taldeak irailean antolatu dituen proiektzio eta hitzaldietan. Salbamentu eta elkartasun proiektuetan diharduten pertsonen testigantzak entzun dituzte, argazki eta dokumentalak

ikusitakoak, eta armagintzaren industriak Euskal Herrian eta Espainian dituen sustraien berri ere jaso dute. Bi hilean behin hausnarketa gai bat proposatzeko asmoari jarraituz, azaroan beste gai bat landuko dute: Drogak.

# German Rodriguezen heriotzarengatik elkartasuna eta salaketa



Elkarretaratze bitartez salatu zuten irailaren 16an German Rodriguez soraluzetarraren heriotza, lan-istripuz gertatu zena. Haren familiari elkartasuna adierazteaz batera, euskal gehiengo sindikalak “neurriak” eskatu zituen lan-istripuen “dramaren” aurrean, gogora ekarrita Hego Euskal Herrian 48 langile hil direla aurten laneko istripuetan. German Rodriguez 46 urteko herrikidea Ondarroan hil zen irailaren 14an, lanean zebilen etxeko laugarren solairutik jausita.

# Manifestaziorako autobusa



Soraluzeko Pentsiodunen Mugimenduak autobusa antolatu du Donostian urriaren 6an egingo den manifestaziora joateko. 17:00etan hasiko da manifestazioa eta 16:15ean abiatuko da autobusa Estaziotik. Izena eman daiteke Iratxo Goxo-dendan edo Itxaropena elkartearen.



# Landa-bideen ordenantza mahaiaren gainean



Baserritarrak eta udal-ordezkariek joan zen asteko bileran.

Landa-esparruan dauden beharrak, bertatik datozen eskaerak eta, oro har, baserritarren kezak eta aurreikuspenak izan zituzten berba, irailaren 27an Udala Gobernu eta oposizioko ordezkariak hainbat baserritarrekin egin zuten batzarrean.

## Bideak konpontzea

Iker Aldazabal alkateak eta Javier Garmendia Ingurumenaren eta Landa Garapenaren batzordeburuak jakinarazi zuten, iaz eskatutako hainbat bide-konponketa egin dituzte, eta beste batzuk egiteko daude. Horrekin batera, proposatu zuten egiteko geratu diren lanetako batzuk datorren urteko aurrekontuan sartzea.

## Seinaleak berritzeko asmoa

Gainera, eta datorren urteari begira, jakinarazi zuten asmoa dutela baserrien seinaleak aldatu eta berriak ipintzeko, horrela behar den kasuetan, eta seinale berriak egurrezkoak barik, metalikoak izango direla.

## Landa-bideen ordenantza

Bestelakoan artean, Garmendia batzordeburuak adierazi zuen

landa-bideen ordenantza landu dutela Soraluzeko Udalan, bereziki, jarduera batzuk arautzeko helburuarekin; esaterako, zehaztu nahi dute, pinuen kamioiak pasatzen direnean eragiten dituzten kalteen aurrean zela jokatu behar den.

Hain justu, gai horrek eragin zuen eztabaida. Hainbat baserritarrek euren kezka adierazi zuten-mendiko bideen egoera ez delako kaleko errepedeena modukoa; eta, ondorioz, “erregular dagoena errebenatzea erraza” delako. Bestalde, Roke Akizuk, oposizioko zinegotziak, jakinarazi zuen EH Bilduk hainbat ekarpen egingo dizkiola ordenantzari.

Garmendiak ordenantza irakurri eta euren iritzia eman edo ekarpenak egiteko eskatu zien bertaratu zirenei, desadostasunak argitu eta araudia onartu baino lehen adostu ahal izateko..

Udalak mendiko bideendako landu duen ordenantza ekarpenak jasotzeko fasean dago. Alde guztiek euren oniritzia emanez gero, urriko osoko bilkuran aurkeztu nahi du udal-gobernuak, bertan onartu eta datorren urtearekin batera indarrean jartzeko.

## Laguntza-bonoak

Urriaren 19ra arte dago aukera Soraluzeko Udaleko Gizarte Zerbitzu Sailak ematen dituen laguntza-bonoak eskatzeko. Zenbatekoak honakoak dira: laguntza sozialak jasotzen dituztenak: 50 euro eta langileak, langabeak, pentsiodunak eta laguntza ekonomiko gabeak: 100 euro. Jasotako dirua herriko dendetan eta saltokietan gastatu beharra dago. Eskaerak egin daitezke Gizarte Zerbitzu Sailean (09:00-13:00) zein Udaletxeko Arreta Bulegoan (09:00-14:00).

## Belaunaldien arteko topaketa, lasterketan



Kalebarren neska-mutikoz, gaztez eta herritarrez gainezka zela, haien txaloe eta animoek bultzatuta eta lagunduta lasterketa egin zuten Mesedeetako egoitzako 40 egoiliar baino gehiagok irailaren 21ean, taldeka banatuta: oinez, taka-takaz edo bastoiaz eta gurpildun aulkiaz. Plaentxi Herri Ikastetxeko ume eta irakasle guztiek (Haur Hezkuntzakoek izan ezik) eta Soraluze BHI Ikastetxekoek parte hartu zuten ekimenean, batzuk egoiliarrei laguntzen, eta gainontzekoek animatzen. Ikusgarria eta deigarria izan zen ekimena.



## ASTEROKO SAIOAK

Zure euskera auzokideekin konpartitzeko abenturan parte hartzerik nahi al dozu?

🕒 Ostiraletan 10:00-11:30 edo 17:00-18:30

📍 Elkartegia  
Etxaburueta kalea, 3

☎ 943 75 13 04 / 646 878 445 (Maialen)

✉ maialen@pilpilean.eus

## EKIMEN OSAGARRIAK HAR(R)EMAN

**Zaku aromatikoak eta zaku berotzaileak**

Urriak 21, domeka, 17:00 - 19:00  
bitartean Elkartegian

Eskulanak eta jostintza tailerra, Leire Ginearekin

# Aurten, bai!

ARGAZKIAK: FERNAN OREGI TESTUA: EGOITZ UNAMUNO

Giro ederra izan dute Mesedeetako jaietan. Iaz ez bezala, aurten, eguraldia lagun izan dute eta jende asko hurreratu da Gipuzkoa etorbideko plazara. Hala kontatu digu Merche Perezek, auzoko jai-batzordeko kideak: “Barikuan euri pixkat egin zuen eta suabe antzean joan zen, baina zapatua egun konpletoa izan zen: umeak jolasean, jendea dantzan... Domekan ere jende mordoxka batu zen dantzak ikusi eta tokan jokatzera. Tokan, esaterako, berrogeitamar lagun baino gehiagok parte hartu zuten”.

Beste behin, Mesedeetako jai-batzordekoek erakutsi dute, elkarlanean eta ilusioz antolatutako jaiak argitasun bereziarekin egiten dutela diz-diz.

**Zozketako zenbakiak:** 1. saria: 1336. 2. saria: 0425. **Mus lehiaketa:** 1. Calviño-Imanol Mendizabal. 2. Peque-Dominguez "Piti". **Tute lehiaketa:** 1. Amparo-Mendo. 2. Juan Ramon Muñoz-Zaka. **Tortila lehiaketa:** 1. Ibon Muguruza. 2. Mirari Gallastegi. **Toka lehiaketa:** 1. Juan Ramon Muñoz Hortigüela.







## Hekimenek alardearen berri ematen ari ziren kazetarien aurkako erasoak salatzen ditu

Hekimen Euskal Hedabideen Elkartek larunbatean Hondarribiko alardearen berri ematen ari zirela, hainbat kazetarik jasandako erasoak salatu nahi ditu eta, bide batez, elkartasun eta babes osoa adierazi nahi die beraien lana egiten ari zirela erasotua izan ziren kazetari horiei denei.

Hekimenentzat onartezinak dira hainbat hedabidetako langileek pairatu behar izan zituzten oztopo eta erasoak (bultzadak, irainak, lanerako tresnak kentzeko saiakerak...), eraso horiekin kazetari horiei ez ezik, herritar orok informaziorako eta adierazpen askatasunerako dituen eskubideei ere eraso egiten zaielako.

Erasotutako hainbat euskarazko hedabideetan diharduten kazetariak izaki (Antxeta irratia, Berria...), informazioa euskaraz jasotzeko eskubidea bera ere erasotua gertatu zen larunbatean eta hori ere salatu

nahi du Hekimenek, euskaraz diharduten hedabideen elkarte den aldetik.

Era berean, Hekimeni oso larria iruditzen zaio aipatutako erasoak une horretan ordena publikoaren ardura bere gain zuten ertzainen aurrean gertatu arren, haiek kazetariak babesteko edota erasotzaileak geldiarazteko inolako neurririk hartu ez izana.

Berriro ere honelakorik gerta ez dadin eta kazetariak beren lana berme guztiakin egiteko aukera izan dezaten hartu beharreko neurriak hartzeko eskatzen die Hekimenek dagokien erakunde publikoei.

### Hekimen

## Eskerrik asko!

Aspanogik, Gipuzkoako Haur Minbizidunen Guraso Elkartek eta bertako kide diren Soraluzeko bi familiek eskerrona helarazi nahi diete, modu batera edo bestera, Aspanogiren aldeko aurtengo jaian parte hartu zuten guztiei. Denei esker, dirutan 3.047 euro jaso

ditu elkarteak. Horietaatik erdia baino gehiago, 30 metro baino luzeago zen ogitartekoa banatuz; eta 1.800 euro, berriz, errifak salduz eta jendearen borondatezko ekarpenen bidez. Gainerakoa, 1.314 euro, Aspanogiko mahaian batu zuten materiala salduz eta jendearen borondatezko ekarpenen bidez jaso da. Diruak besteko balioa izan zuen, baina, irailaren 8an Soraluzen bizi izandakoak. Aspanogiko ordezkariak biharamunean esandakoaren arabera, "mundiala izan zen Soraluzeko elkartasun eguna. Beti bezala, herri osoa bolkatu zen lanerako eta festarako eta emaitza ederra izan zen".

### Aspanogi

[aldizkaria@pilpilean.eus](mailto:aldizkaria@pilpilean.eus)  
[helbidera bidali gutunak](#)

### HAUSNARKETA

## Pinuak gaixorik

Herriko pinudietara ere heldu da 'Lecanosticta acicola' onddoa eta bizkor ari da zabaltzen. Egoeraren inguruan duten iritzia eman digute herriko pinadi-jabe batzuek.



**Oihana  
Laskurain**

Pinurik gehienak gaixotuta daude, eta, gainerakoak, bidean. Instituzioek lehenago hartu behar zituzten neurriak. Jendea oraindik ez da konturatu datorrenaz, baina guztizko aldaketa dator gure mendietara. Baso asko geldituko dira bota barik; denak ezin daitezke batera bota. Gainera, ze motibazio dago berriak sartzeko? Askok bertan ustelduko dira, sasiak hartuta. Etorrizuna beltza ikusten dut nik.



**Javier  
Izagirre**

Nik pinadi asko ditut. Batzuetan insignis pinuak dauzkate eta horiek gaixotu egin dira. Beste batzuetan, geronek sartutako pinuak daude, alergia eta abeto motakoak, eta horiek salbu daude, oraingoz.

Nire beldurra da, gaixotutakoak kendutakoan zer sartu gero? Beste abeto mota bat? Niri eukalptoak ez zait gustatzen.

**Pinuaren testamentua**

*eta bizi nintzen paraje guztiak  
bere benetako jabeei, pago  
haritz eta gaztain  
jaun anderei  
uzten dizkiet*



**Egilea: P.G.**



**Oskar  
Aldazabal**

Bost urte dira 30 bat hektarea pinu sartu genituen, eta, orain, gaixorik daude denak. Abenduan tokatzen da garbiketa egitea, baina ez dugu ezer egingo, zer gertatzen den ikusi arte. Diputazioak dio tratamendu bila dihardutelara, baina ez du ematen ezer datorrenik. Zeinek sartuko du dirua jakinda ez duela ezer aterako? Batzuk eukaliptoak gomendatzen dute, baina eukaliptoak hogeitau urtean ezer barik lagatzen du lurra.



**Julian  
Ezenarro**

Gu ez gara pinuzaleak eta pinadiak zelai bihurtu eta bertako arbola klaseak zaintzen dihardugu. Gauzak ez dira ondo egin eta erre egin ditugu mendiak. Administrazioari dagokio etorkizunerako bidea markatzea. Arrasaten, udaletxeak arautzen du mendietan zer sartu daitekeen eta zer ez. Lurjabeek informazioa eta aholkularitza behar dute orain.



**Paula  
Alonso**

**Gerokoak**

Luze jo zuen pasa den ostegunean lagun artean izandako elkarrizketak, gai batekin denak mututu arren. Ikasketak amaitu ostean gertatuko dena da ikasle gehienok buruan dantzan darabilguna, are gehiago berandu hasi ditugunok.

Gradu edo bestelako ikasketa askok eskaintzen duten planteamendu motak lana eta ikasketak batera egiteko zailtasunak dakartzate; gauzak horrela, gutxi dira gradua bukatu ostean lan esperientzia askorik dutenak. Laneko eskarmentuak ikasketekin zerikusirik izan ez arren, beti baloratuko da positiboki aurretik egindako guztia. Horrez gain, graduaren arabera praktikak ere mugatuak izaten dira, eta batzuetan azkenengo urtera arte ez dute praktikak egiteko aukerarik ematen. 2, 4, 6 urte liburu artean eman ostean, ikasketak bukatu eta lanerako gai ez izatea da ikasle askoren beldurra, eta aurrez azaldutakoa da horren jatorria. Hasieran baino galduago ez egoteko esperantzarekin bukatuko dugu urtea.



## HAMAIAKAKOA

Ahobizi-ak: Kris Jacas Mateu, Oier Oregi Unamuno, Garazi Catalan Arenaza, Myriam Goenaga Juez eta Araceli Maiztegi Abarrategi.

Belarriprest-ak: Sebas Hernandez Garate, Inma Matute Zabala, Asun Aranda Nuñez, Ixa Rodriguez Saez, David Rascon del Caño eta Ibtisam El Kanouni Ennaoui.



## ERREPORTAJEA

# Herritarren txanda

Ariketa sozial erraldoia izango da azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean Euskal Herrian egingo dena; 400 herrik baino gehiagok eman dute izena eta Euskal Herri osoko erakundeek babestu dute. Orain, herritarren txanda da; izen-ematea zabalik dago.

ARGAZKIAK: **FERNAN OREGI** TESTUA: **EGOITZ UNAMUNO**

Ariketa sozial erraldoia izango da azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean Euskal Herrian egingo dena; 400 herrik baino gehiagok eman dute izena eta Euskal Herri osoko erakundeek babestu dute. Orain, herritarren txanda da; izen-ematea zabalik dago.

“Zer iruditzen 11 egunez ahalegina egiten badugu gure hizkuntza-ohiturak aldatzeko, aurrez hitzartuta elkarren

artean euskaraz jardungo dugula?”. Horixe proposatzen du Euskaraldiak.

Hauxe azaldu digu Arianne Unamunok, 365 taldeko kideak: “Astindu nahi ditugu hiztunen arteko inertziak, erakusteko posible dela euskaraz egitea eta Soraluzen guk uste duguna baino jende gehiagok dakiela euskaraz. Ekimen horren bitartez, sortu nahi dugu giro eroso,



***“Euskaraldia ez da festa izango: eguneroko ohiturak aldatzeko saioa izango da, inplikazioa eskatuko duena”***

herrian euskaraz egiteko aukera gehiago eskainiko duena”. Azken batean, bilatzen dena da eguneroko bizimoduan euskararen erabilera normalizatzea da.

Jarraibideak zehatzak dira: “Hamaika egunez, euskaraz dakitenek euskaraz berba egingo dute ulertzen duten pertonekin; euskaraz egingo diete lehen hitza, baita ezagutzen ez duten jendeari ere. Ulertzen dutenek, berriz, euskaraz egiteko eskatuko diete euskaldunei”.

**Ahobizi ala Belarriprest?**

Herritarrek bi modutara parte hartu ahal izango dute ekimenean: “Ahobizi modura parte hartzen dutenek, euskaraz berba egin beharko dute ulertzen duten guztiekin, nahiz eta haiek gazteleraz erantzun, eta lehen hitza euskaraz egingo diete ulertzen ez duten pertonei ere. Belarriprest modura parte hartzen dutenek, berriz, euskal hiztunei adieraziko diete nahi dutela eurei euskaraz egitea, nahiz eta haiek gazteleraz erantzun”.

**IZEN-EMATEA**

**Online:** [www.euskaraldia.eus](http://www.euskaraldia.eus)

**Paperean:** Euskaraldiaren lokalean. Martitzenetik barikura, 17:00etatik 20:00etara. Baita Iratxo goxodendan eta Udaletxeko harreran ere.

Ekimenean parte hartzea erabaki duten herritarrak identifikatzeko, paparreko txapa erabiliko dute.

**Ondo aukeratzea komeni**

Antolatzaileen esanetan, izena eman aurretik, komeni da Ahobizi edo Belarriprest rolen esanahaia ondo ulertzea; ondoren, konpromisoa behar bezala betetzeko.

“Euskaraldia ez da festa izango: eguneroko ohiturak aldatzeko saioa izango da, inplikazioa eskatuko duena. Rol biek eskatzen dute inplikazioa, baina Ahobizi rolak eskatzen duena altuagoa da. Euskaldun guztiak ez dute zertan Ahobizi izan, ez baita aukeratu behar norberak daukan gaitasunaren arabera, baizik eta norberak 11 egunetan eduki nahi duen jokabidearen arabera. Esaterako, euskaldunak elkarrizketa elebidunak izateko bere burua indarrez ikusten ez badu, egokiagoa da Belarriprest rola hartzea. Bi rolak dira garrantzitsuak eta ezinbestekoak”.





Hainbat herritar hurreratu ziren eguenean Euskaraldiaren lokalera.

### Euskaraldiaren lokala zabalik

Joan zen eguenean zabaldu zituzten Euskaraldiaren lokaleko ateak, eta, aurrerantz, berau izango da ekimena herritarrengana hurreratzeko erabiliko duten leku nagusia. Bertan eman ahaliko da izena, informazioa eskuratu, prestakuntza tailerretan parte hartu, paparreko txapak jaso, materiala erosi eta, batez ere, hizkuntza biziberritzearen aldeko ilusioa elkarbanatu arreta eskainiko duten herritar boluntarioekin. Ondorengo ordutegia izango du: martitzenetik barikura, 17:00etatik 20:00etara.



Uda aurretik Ahoiziendako tailerra jaso zuten hainbat herritarrek.

### Prestakuntza-tailerak urrian

Urriaren amaiera aldera hasi eta azaroan zehar, Euskaraldian izena ematen duten herritarrendako prestakuntza-tailerak eskainiko dituzte, 11 egunetan zela jokatu ensaiatzeko. 90 minututan Ahoiziendako, alde batetik, eta Belarriprestendako, bestetik, jarraibide eta trikimailuak aztertuko dira. Horrez gain, gomendioak eta aholkuak ere eskainiko dituzte. Tailer horien egutegi zehatza urrian zehar ezagutaraziko dute.

## Izan nahi duzu boluntario?



Dagoeneko, dozenaka herritar dira Soraluzen Euskaraldia bideratzen laguntzen diharduten boluntarioak. Modu askotara eman daiteke laguntza: lokalean txandak betez, herritarrei euskaraldia zer den azalduz, tailerrak emanez... Boluntario moduan aritu nahi izanez gero, idatzi edo deitu lasai 688 613 698 zenbakira, edo hurreratu lokalera. Ondo etorria izango zara!

## Uste baino jende gehiagok ulertzen du

Euskararen ezagutza-datuei erreparatuz gero, euskaraz hitz egiteko gai direnak eta ulertzen dutenak batuta -16 urtetik gorakoak- %45a dira Euskal Herri osoan, guztira 1.191.330 pertsona. Soraluzen, berriz, euskaraz ulertzen duten herritarrek %74,77 dira, 2.786 pertsona. Datozen urteetan handituz joango da portzentaje hori, belaunaldi gazteen eragina dela-eta. Hain zuzen, egoera horri ahalik eta etekin handiena ateratzeko saiakera egitea da Euskaraldiak proposatzen duena.

\*Iturria: Eustat 2016.



Ezagutzaren mapa Euskal Herrian. ARGIA.EUS



# 11 EGUN EUSKARAZ

2018ko azaroaren 23tik abenduaren 3ra

EUSKARALDIA



## AHOBIZI edo BELARRIPREST?

Euskaraldian parte hartu nahi dut.  
Baina zein rol aukeratuko dut?  
Belarriprest? Ahobizi?

1 Norbaitek euskaraz egiten dizunean, ulertzen al diozu?

**BAI**

**EZ:** Euskaraldia ez da zuk parte hartzeko egokia. Ulermena landu dezakezu eta hurrengoan parte hartu. Hala ere, aurten giroa sortzen eta errazten lagundu dezakezu.

2 Prest al zaude jendeak zuri euskaraz egiteko?  
Ondo hartuko al zenuke dakiten guztiek zuri euskaraz egitea?

**BAI**


**EZ:** Euskaraldia ez da zuk parte hartzeko egokia

3 Azaroaren 23tik abenduaren 3ra bitartean ulertzen duten guztiekin euskaraz soilik egiteko prest al zaude? Ezagunekin zein ezezagunekin, edonon eta edonoiz, batzuetan solaskideak erdaraz erantzun arren?

**BAI**



**EZ**



# Azken ukituak ematen dabilta I. Soraluze Urban Trail lasterketara begira

Ia guztia gertu dute domekan, urriaren 7an, I. Soraluze Urban Trail lasterketa egiteko. Berau da Soraluze, Mugituz! ekimenak ikasturterako antolatu duen azken kirol-jarduera. Mugimendu horren filosofiari jarraituz, bi lasterketa motatan parte hartzeko aukera izango da domekan: 09:30ean hasiko den 10,8 kilometroko lasterketan edo 11:00etan hasiko den 6 kilometroko herrikoian (ez lehiakorra). Lehenaren kasuan, 750 eskailera baino gehiago gainditu beharko dituzte lasterkariak, eta Andainan, berriz, 500 pasa.

I. Soraluze Urban Trail-en izena emateko epea zabalik dago *kirolprobak.com* web-orrian. Edozein modutan, lasterketa egunean bertan ere eman ahal izango da izena: lasterketa luzerako 08:00ak eta 08:45ak bitartean, kontzejupean. 30 dortsal gordeko dituzte horretarako. Hori bai, egunean bertan izena ematearren 14 euro ordaindu beharko da, bestela, 7 euro. Eta Andainarako ere eman ahal izango da izena domekan, 08:00-10:15ak artean, kasu horretan ere udaletxe azpian eta 30 dortsal gordeko dituzte horretarako. Lasterketa ez lehiakorrean, baina, ez da aldatuko ordaindu beharrekoa (4 euro).

## Herrigunetik

Bi lasterketen ibilbidearen %100 herrigunean egingo da eta irteera eta helmuga Zubi Nagusian izango dituzte, herriaren ardatz nagusi den Deba ibaiaren albotik hainbat aldiz pasatu ondoren. Edozelan ere, lasterketa lehiakorrean eta ez lehiakorrean artean bada desberdintasunik: alde batetik, *Andainako* jaitsierak laburragoak dira; eta bestetik, lasterketa nagusiak zazpi igoera-gune ditu, ez lehiakorrek, berriz, bost.



Jokin Martinez Pablo Galarragak diseinatu duen kartelarekin.

Hori guztia gauzatzeko laguntzaile bila dabilta egunotan. "Kalkulatzan dugu denera 50 bat laguntzaile beharko ditugula. Zirkulazio eteteak daude, anoak banatu beharra..."

horiek guztiak lotzeko boluntariotalde handia behar da. Beraz, norbaitek lasterketan korrikan barik, beste moduren batera parte hartu nahi badu, boluntario modura" parte har dezakeela adierazi du Jokin Martinezek., lasterketaren antolatzaileetako batek

Bestalde, sariak eta oroigarriak ere izango dira parte-hartzaileendako: "Gizon eta emakume irabazleentzat Manu Cifuentes Soraluzeko arotzak egindako garaikurra izango da. Soraluzeko bertako kontsumoia bultzatzeko halako detaileak lotzen ahalegintzen gara. Eta Soraluzeko lehenengoendako (gizon zein emakume) izango da KLB6 saltokiko bonua. Herrikoian, ostera, lasterketa ez lehiakorra denez, opariak zozkatuko dira. Adibidez, Renegade markako betaurrekoak.



Mendizaleak aurtengo Marraskilo Tourrean.

## Marraskilo Tour

Eguraldi ederrarekin, 115 mendizale inguruk zeharkatu zituzten Soraluzeko mendiak irailaren 15ean egin zen Marraskilo Tour ekimenean. Soraluze, mugituz! ekimenak antolatutako ibilaldia izan zen berau. Soraluze Mendi Taldeak eskerrak helarazi zizkieten "gure mendiez gozatzera gerturatu ziren mendizale guztiei". Eta eskerrak eman zizkieten antolatzen lagundu zuten guztiei ere: "Euren laguntzarik barik ezinezkoa izango baitzen martxa antolatzea".

# Sorak urriaren 6an aurkeztuko ditu taldeak



Sorako kadete-mailako aurtengo taldea.

Soraluze Futbol Taldeak hasi du aurtengo jarduna. Gorengo mailako eta kadete mailako taldeek hirugarren jardunaldia jokatu dute; infantil mailako taldeak, berriz, urriaren 16an du lehen hitzordua.

Bestalde, datorren zapatuan, urriaren 6an, aurtengo ekipoak aurkezteko ekitaldia egingo dute. 15:30ean egin dute hitzordua, Ezozikoko futbol-zelaian.

## Omenaldia

Ekitaldiarekin hasteko, taldeak banan-banan aurkeztuko dituzte eta ondoren, argazkia aterako dute guztiak. Gero, Sorako bi jokalariri omenaldia egingo diete, taldean emandako 20 urteengatik. Borja Olaizola eta Raul Luis dira bi jokalaririk; Sorako ordezkariek plaka bana emango diete, oroigarri. Aurkezpen-eguna borobiltzeko, partidua jokatu du Sorako goi-mailako taldeak Idiazabalgo taldearen kontra.

## Berritasunak

Aipatzekoa da Sorak denboraldia berritasunekin hasi duela. Batetik, ahalegindu dira herriko jokalaririk gehiago erakartzen lehen taldera, eta 15 herritarren baiezkoa lortu dute. Bestetik, entrenatzaile berriak

ditu talde nagusiak, hiru: “Ivan Rodriguez da lehen entrenatzailea, Oihier Zabaleta da atezainen entrenatzailea edo bigarrena, eta Pedro Rodriguez da ordezkarria, masajista... denetik. Arrasatekoak dira”, hala esplikatu dute Sorako zuzendaritzako kideek. Azkenik, gazte-mailako taldea ezin izan dute osatu, jokalaririk faltagatik.

Jardunaldiei dagokionez, Gorengo mailakoek 30 jardunaldi dituzte; kadete eta infantil-mailako taldeek, berriz, 12. Aurten zer helburu duten galdetuta zera erantzun dute zuzendaritzakoek: “mantentzea”.

## Futbol-eskola

Bestalde, Sorako futbol eskolak irailaren 17an hasi zuen ikasturtea, 63 neska-mutikorekin, lau taldetan banatuta. Ume asko batu dira aurten Soraren eskolara, iaz baino gehiago; ondorioz, benjamin 1. mailan bi talde osatu dituzte. Bederatzi jardunaldi dituzte, eta egutegia jasotzeko zain daude, edozein modutan, urriaren amaiera aldera hasi eta maiatzean bukatuko dute txapelketa. Entrenatzaileak, berriz, honakoak izango dira: Mikel Calvo, Markel Gil, Victor Perez, Julio Rascon, Xabier Gil eta Aitor Barrutia.

## Herriko pilotariak Gipuzkoako txapelketan

Irailaz geroztik, Soraluzeko Pilota Elkarteko jokalaririk eskuz binaka zein gomazko paletan Gipuzkoako txapelketan lehiatzen ari dira. Eskuz binakako txapelketari dagokionez, Atxotegi, Balerdi eta Santamaria dabilta lehen mailan. Azarora arte dituzte hitzorduak, eta txapelarengatik “borrokatzeko moduan” daudela uste du Aitor Atxotegik: “Saiatuko gara. Talde nahiko indartsua tokatu zaigu, parekatuta gaude. Beraz, detaileetan egongo da gakoa”.

Gomazko paletan, berriz, Gipuzkoako Txapelketan 2. eta 3. mailan lehiatzen ari dira Soraluzeko ordezkaririk: Oñate, Fernandez, Gallastegi, Etxeberria eta Heriz, hain justu.

Bestalde, Soraluzeko Pilota Elkarteko eskola oraingo astean hasi da. Gurasoekin egindako batzarrean azaldu zuten astelehenetan, eguaztenetan eta barikuetan direla pilotako eskolak: “Eskolako egutegia erabiliko dugu, gauzak errazte aldera. Ibai Kortabarria, Josu Unanue, Aitor Atxotegi eta Gorka Santamaria izango gara begiraleak. Urtean bi erakustaldi egingo ditugu: Gabonetan lagunarteko txapelketa, eta udan denok denon kontra egiten dugun txapelketa eta finala”, esplikatu zuen Atxotegik.

Kuotari dagokionez (45 euro), urriaren 24an kobratuko dute. Izan ere, hiru astean probatzeko aukera emango dute: “Umeek erabakitzeak ea gustuko duten edo ez. Norbait zalantzan baldin badago, etor dadila trankil probatzera”.



## Errementari eta Oreinak

Ostegunetako pelikulak egitasmoaren karteldegia berritasunekin dator. Aurten, proba modura, zikloan izango diren pelikuletako hiru domeka arratsaldeetan ere proiektatuko dituzte, hiru euroren truke.

Udazken-neguko programazioan sei pelikula eskainiko dituzte: *Errementari* (urriaren 25ean), eta *Oreina* (abendua 13an eta 16an), euskal filemkin batera, *La forma del agua* (urriaren 11n eta 14an), *Campeones* (azaroaren 8an eta 11n) eta *Custodia compartida* (azaroaren 22an).



## Urriaren 19an hasiko da antzerki zikloa Zoaz pake santuan antzezlanarekin

Urriaren eta azaroaren *Antzerki garaia* izeneko antzezlanen zikloa izango da Sorraluzen. Taula gainean Mikel Laskurain, Ane Gabarain, Joli Pascualena, Sandra Fernandez Agirre, Kepa Errasti, Fran Lasuen... moduko antzezleak ikusteko aukera izango da, euskarazko zein gaztelaniazko launa antzezlanetan.

Lehen ikuskizuna urriaren 19an izango da, barikuan. Begoña Bilbaok zuzendutako Txalo Produksioak etxearan *Zoaz Pake Santuan* antzezlanaren taularatuko dute euskaraz Mikel Laskurainek eta Ane Gabarainek, 22:15ean, antzokian.

Musika kontuak izango ditu protagonista urriaren 27an, zapatuan, 20:00etan Patxi Barcoren zuzendaritzapean taularatuko duten *Todos los musicales, o casi lanak*.

Azaroan, berriz, Hika Teatrok Agurtzane Intxaurregaren gidaritzapean *Txarriboda* izeneko




*Zoaz Pake Santuan* antzezlanaren kartela.

istorioa taularatuko du (euskaraz), hilaren 16an, barikuan, 22:15ean.

Eta *Antzerki garaia* zikloari amaiera emateko Paco Obregonek zuzendutako *Frida* antzezlanaren ekarriko du Iris Teatrok, azaroaren 24an, zapatua, 20:00etan.

## Karlos Linazasoren azken liburua berbera irakurleen klubean



6012 liburuaren azala.

Jasone Osoro idazle elgoibartarra gidari dutela abiatuko du ikasturtea Irakurleen klubak. Karlos Linazasoro idazle tolosarraren *6012* liburuaren irakurritz hasiko dira saioekin, eta bi hilean behin elkartuko dira euskarazko liburu bati buruz solasaldi egiteko. Nahi duenak aukera dauka klubean parte hartzeko; horretarako, eman izena Udaleko Hizkuntza Politikaren Zerbitzura deituta (943 753 043).

**Urtebete pasako ibilbidea** Iazko otsailean sortutako ekimena da Irakurleen kluba, Udaleko Hizkuntza Politikako Batzordearen eta Liburutegiaren elkarlanari esker. Iaz, esaterako, Jon Arretxe idazlea gonbidatu zuten, hark idatzi eta klubeko kideek irakurritako liburuaz mintzatzeko antolatutako saio berezira.

**TXURRUKA JATETXEA**

Sukalde tradizionala  
Eguneko menua  
Asteburuetako menu berezia  
Karta

www.txurruka.com  
Tel.: 943 75 15 81



**ELIZPE HORTZ KLINIKA**

Zure genak hartz klinika, zure puntako teknologekin lan egiten dugu. Cad-Cam sistema berriak zure enbutean dugu.

Elizburu, 3 behea  
SORALUZE  
Tel.: 943 75 25 67  
e-mail: elizpe@hotmail.com

Ordutegia:  
Astelehenetik ostiralera  
10:00 - 11:00 eta 16:00 - 20:00



**Txoko**

Eguneko menua,  
plateak konbinatuak,  
hamburgeriak,  
ogitariekak,  
rakiak,  
pizzaak,  
gostaria...

Enkarguak egiten dira  
Tel. 943 75 17 88



**MABEL IL-FARPAINDEGIA**

Ivanritzako keratina  
tratamendua  
Degilazioa  
Ilu-sustrairik gabeko  
permanentea  
Makilajua  
Manikura  
erdiraunkorra  
Solariuma

Errabai 1  
Tel.: 943 75 14 89



**SUMA basolanak**

ITZAG. 635 71 34 08

*baso garbiketarak eta entresakak*  
zortzi lagunekoa taldea zure zerbitzura



*Jaietaren plazarrera, bertatik bertara*

**Batzoki**

eguneko menua  
asteburuetako  
karta eta rakiak

ogitariekak eta  
konbinatuak  
enkargu bereziak

Emilia eta  
Igorri ariete  
beharrik

Diruziak 943 75 20 50



**Ramon Lizarazu**

ERRABAI KALIA, 24  
TEL. 943 75 91 32



**AURREZTU ENERGIA**

Beratu ura eguzki izpiekin  
edo airearekin

fontaneria  
**San Andres**  
Iturgintza

639 179 696 • sanandresiturgintza@gmail.com



**Hortz klinika**

27 urteko esperientzia

Javier Alamo  
Mediku Odontologikoa  
K.E. 46.001.504

Katia Guñe  
Odontologoa  
K.E. 46.001.546

Itzak ginekologia, ortodontia, ortodontia, ortodontia, ortodontia, ortodontia...

Errabai 1 - Tel.: 943 75 10 13



**KLB6**

Kalebarren 6  
943 57 71 28

Muler-eta-rentzen modu-garbia

Alas  
Tel. 943 57 71 28

Alas Garma  
ISOLID  
VERO MODA



**IZZGUIRRE**  
Igeltzeritza

Erakin berriak • Kalitatezko emaitza  
Erreformak • Era guztietako igeltzeritza

50 urteko esperientzia • 610 638 913 • 640 867 289



**Kontulan**  
aholkularitza  
ABOKATUAK

Errenta, altopenak • Administrazioa lanak  
Tratamendu burokratikoak • Lan-erleko aholkularitza  
Erregimen kontuzio/ideologiazkoak • Kontabilitateak

Santa Ana 13 - 1. ed. 20190 Sorluze  
Tel. 943 75 17 82 / Fax 943 75 01 82



**MENDIZABAL**  
okindegia  
Ogia • Prentsa • Gostariak

Astelehenetik ostiralera:  
08:00 - 13:00  
17:00 - 20:00

Larunbatak eta igandeak  
08:30 - 13:15

Kalebarren 10  
Tel.: 943 75 13 99



**Mimar**  
OKINDEGIA

Ilu-farpaindegia  
Esterika  
Solariuma

Galdak 4, behea  
Tel.: 943 75 25 21 - 682 51 24 84



Euskalzaletasunaren alde:

**SOMABE** **Aras** **ALBISUA** **laibi** **SORALUCE**  
ELECTRICIDAD





Aitaxi, iloba besoetan duela.

SAKONEAN

# Soraluzetik Amikuzera

“Castillan sortua, hangoa pixka bat, Soraluzekoa pixka bat eta, orain, denbora gehiago pasatua dut hemen, Amikuzen”. Ildefonso Perez San Jose, “Ilde”, Baxenafarroako Amikuze bailaran bizi da Ostanko herrian. Badira hogeit hamar urte bertako baserri batean bizi dela, eta hogeit hamar inguru, Soraluze laga eta Ipar Euskal Herrira heldu zela. Frailetarako zihoan, baina artoei “lilia” moztera joan zen Amikuzera eta, azkenean, bertan bota zituen sustraiak. *Elkarrizketaren audioa entzungai [plaentxia.eus-en](http://plaentxia.eus-en).*

ARGAZKIAK ETA TESTUA: **EGOITZ UNAMUNO**

1968an, zazpi urte zituela, familiarekin batera etorri zen Valladolidetik Soraluzera. 11 urte zituela Arantzazura bidali zuten fraile ikasketak egitera; gero, Gernikan, Foruan, Iruñean, Aranda de Dueron (Burgos) eta Bilbon jarraitu zituen ikasketa erlijiosoak. 21 urterekin, ostera, eten egin zuen fraile-ibilbidea. Ordurako, lotura estua zuen Baxe Nafarroako Amikuze bailararekin, eta amikuztar batekin ere bai: “Frantziskanoekin ginelarik Foruan, beti galdetzen ziguten norbaitek nahi baldin bazuen frantsesa ongi ikasi, posibilitatea zela lan egiteko Amikuze eskualdean, artoari lilia kentzen, udan hilabete

batez. Ni hasi nintzen etortzen 1979an, eta, horrela ezagutu nuen Josianne, nire emaztea”.

## Laborantzari lotua

Bospasei urte egin zituen Soraluzetik Amikuzera joan-etorrian eta, azkenean, Amikuzen bizitzea erabaki zuen. Hasiera hartan, egurra zizelkatzen egin zuen lan, baina, berehala, Donibane Garaziko lorategi batean hasi zen. Ondoren, jardun zuen nekazal-teknikari moduan, behi-hazkuntza sektoreko elkarte batean; eta, azkenik, bere kontura hasi zen frutagintza eta baratzegintzako zerbitzuak eskainiz, kimaketak eta abar: “Ene sehaska





Josianne, ahateak etxeraten.



Ilde eta iloba, Munoa baserria atzean duela.

## “Frantziskanoekin ginelarik Foruan, beti galdetzen ziguten norbaitek nahi baldin bazuen frantsesa ongi ikasi, posibilitatea zela lan egiteko Amikuze eskualdean, artoari lilia kentzen”

laborantzan zen eta beti saiatu naiz horri buruz lan egiten”.

Munoa baserria du bizileku, bere emazte Josiannerekin batera. Orain dela hogeitaz urte erosi zuten etxea lur-eremu batekin. Bertan hazi dituzte hiru seme-alaba: Julen, Laura eta Manu. Horiek ere jaso dute laborantzarako “gostua”, “beren bizia egiten dute eta denek badituzte baratzeak!”, aitaren pozerako.

### Euskal kulturaren engaiatua

Euskal kultura-mugimenduan engaiatua da Ilde, parte hartu du, besteak beste, Burgaintzi eta Bitindarra dantza-taldeetan, Kilimon erraldoien taldean, Donapaleuko ikastolan, Trikamik trikitixa-elkartean (lehendakari), Zabalik euskaltzaleen mugimenduan eta BLE Biharko Lurraren Elkartean. Hiru seme-alaba gazteek ere jarraitu diote arrasto horri, batez ere, dantza eta musika munduan.

### Euskararen hautua

Gaztelera du ama-hizkuntza eta erabiltzen du: “*Enfado* bat dudalarik eta *injurias* eta hori dena, beti Español ez egiten dut (barreak)”. Egunerokoan euskara eta frantses darabiltza. Gogoan du euskararekin izan zuen lehen harremana: “Zazpi urte nituen Soroluzera etorri ginelarik eta kalera atera eta nehorri ez nion deus konprenitzen. Salbu *castellano* bat pasatzen bazen, denek

ematen zuten lehen hitza euskaraz. Guretako beste mundu bat zen. Ene aitaren lagunak baziren *puclanoak* eta *extremeñoak* eta gure munduan beren haurrak ziren, eskolako lagunak-eta. Frantziskanoekin joan nintzelarik, hamaika urterekin, hor derrigorrez behar nuen ikasi (euskara). Baziren *castellanoak*, baina gehienak euskaldunak ziren. Enetako, haustura bat izan zen. Gerora, denbora anitz eman dut hori barneratzeko. Gero, frantziskanoetatik aterata, banekien euskara nahi nuela hitz egin eta segidan hasi nintzen AEKn (Soroluzen). Hautatu nituen lagun euskaldunak, beraiekin euskara egiteko kalean”.


### Tarteka, Soroluzera

Urtean hiru-lau aldiz etortzen da Soroluzera, Gaztañerre egunean, Andramari jaietan Valladolidetik bueltan... familia (aita eta anai-arrebak) eta lagunak bisitatzen. Mesedeetako jaietara ere etorri izan da bost bat urtez, Mattin eta Xalbador erraldoiak hartuta, Kilimon taldearekin. Aitortu digunez, “ezta sortu hango eta hemengo jendeen arteko harreman esturik, ez Urretxun, ez eta Soroluzen ere”. Etorkizuna, ordea, idazteko dago.

### Almaraz de la Mota

“Ni Almaraz de la Motan sortua naiz. Almaraz hitzak nahi du esan non den labrantza leku bat, garia edo garagarra ereiteko. Herrian 1500 hektarea ziren, mendia eta lantzeko lurak. Baziren 24 familia momentu hartan. Nagusia hil zen, eta ilobek atzeman zuten Valladolideko konstruktore bat eta berak sosa atera zuen problemarik gabe; orduan, bizilagun denek atera behar izan zuten herritik beste leku batzuetara. Gero, bota zuten herri guztia, eliza besterik ez zuten utzi. Handik laster, egin zuten autobia.”

# Mikel Ostolazak txalaparta ikastaroa eskainiko du urrian



Mikel Ostolaza txalapartaria da eta urteak daramatza soinu-tresna horrekin "engantxatuta". Zaletasuna zabaldu asmoz, txalaparta-ikastaroa antolatatu du urrirako.

## Noiztik jotzen duzu txalaparta?

Hamasei urterekin hasi nintzen jotzen, koadrilako lagun batekin. Hura hasi zen ikastaro bat egiten eta neu berarekin. Perkusiozalea naiz eta txalapartak maitemindu egin ninduen.

Garai hartan, 80ko hamarkadan, oraindik ez zen hain ezaguna. Gaur egun, topa dezakezu txalapartari bat edozein herritan.

## Zer du erakargarria?

Erritmoa, egurra, euskal kulturarekiko lotura... Harrigarria da txalapartak zela erakartzen duen jende gaztea. Hain instrumentu zaharra eta hain modernoa da aldi berean... Izatez, txalaparta jaio zen sagardogintzako prozesutik, tolaretik, kirikoketatik, eta bihurtu zen festarako tresna, lanaren amaiera iragartzen zuena. Gaur egun hots-tresna banguardizatzen hartzen da.

## Asko aldatu da jotzeko modua?

Bai eta ez. Gaur egun badira afinatutako txalapartak ere eta

modu askotara jotzen da. Baina txalapartari denok daukagu oso barneratuta, jatorrizko erritmoan dagoela oinarria.

## Garrantzitsua izango da bikote egokia topatzea...

Bai, oso, batez ere, erritmoa uztartzeko. Nik gehien Loiola Maderarekin jo izan dut. Asko gozaten dut berarekin.

## Azken urteotan txalaparta asko entzun dugu herriko

### aurkezpenetan, omenaldietan...

### Hori da bere leku naturala?

Egia da ekitaldi politiko eta kulturalak girotzeko jotzen dela askotan. Nik jo izan dut ezkontzetan, hiletetan, enpresa baten urteurrenean, San Juan suan, Olentzeroren etorreran... Baita Bergarako orfeoiekin ere, edo diskotekan musikarekin. Gaur egun badira sekulako maila duten txalapartariak (Oreka TX, Hutsun, Beltran, Ugarte Anaiak, Kuttunak...) eta txalaparta hutsezko kontzertuak ere eskaintzen dituzte, fusioak ere bai beste instrumentu batzuekin... Txalapartaren lekua zabala da gaur egun.

## Nondik sortu zaizu ikastaroa ematearen ideia?

Soraluzen banaka batzuk eskatu izan didate eta neuk ere aspalditik nuen gogoia beste ikastaro bat antolatzeko, azken urteotan jaso ditudan oharrak jendearekin konpartitzeko. Lehenago ere eman izan ditut: Bergaran, Eibarren, Antzuolan...

## Zer irakatsiko duzu ikastaroan?

Erritmoa lantzeko ariketa praktikoekin batera, teoria ere landuko dugu: txalapartaren jatorria eta historia, euskal kulturarekiko lotura. Ondo legoke Soraluzen afizioa zabaltzea, eta taldetxo bat sortzea elkarrekin jotzen eta ikasten jarraitzeko.

## Ikastaroa

Iraupena: 18 ordu. Astean bi eskola, ordu eta erdikoak.  
Egunak: Urriaren 15etik azaroaren 21era. Astelehenak eta asteazkenak.  
Ordutegia: 18:30-20:00 / 19:00-20:30. (Zehazteko)  
Tokia: Musika eskola.  
Prezioa: 15 euro.  
Epea: Urriak 12.  
Izena-ematea: 686853337 (Mikel).

## ZORION AGURRAK

**Irene Agirre Arrillaga**

Irailak 6an 9 urte. Zorionak etxeko guztien partez politxori! Primeran pasau zure eguna.

**Nahia**

Abuztuaren 13an 8 urte. Zorionak maitxia! Jarraitu horrela. Etxekoan partez milioi bat muxu.

**Peru Soriano Sebal**

Aupa Peru! Bi urte ederrak zurekin! Txokolatezko patxo potolo potoloak!

**Mari Carmen Zarrabe**

Irailak 7an 80 urte. Zorionak amama! Segi beti bezain guapa. Familia guztixan partez.

**Iñaki Larrañaga eta Maren Agirre**


Irailaren 7xan, 51 urte eta abuztuaren 14an, 7 urte. Zorionak! Familiakoan partez.

**Gorka De Cos Maiztegi**

Irailaren 8an, 11 urte. Zorionak etxeko txikiari! Jarraitu orain arte bezala etxea alaitzen.

**Sara eta Maren Aldazabal Castillo**

Abuztuaren 2lean, urtebete, eta irailaren 25ean, 5 urte. Zorionak eta muxu handi bat. Etxekuen partez!

**Ander Pastoriza**

Irailaren 2lean, 13 urte. Zorionak artista! Segi holakoxe jator! Lagunen partez.

**Eñaut Cerrejon**

Irailaren 11 an 10 urte! Zorionak Eñaut danon partez!! Asko maite zaitxugu!!

**Oinatz eta Eire Beretxinaga Heriz**

Irailaren 4an eta 23an, 7 eta 3 urte. Zorionak gure etxeko bizipozei! Patxo haundi bana!

**Sugar eta Maddi**

Abuztuaren 10ean eta uztailearen 16an, 9 urte. Zorionak sorgintxo politxok! Asko maitxe zaitxuztegu! Patxuak etxekuen partez!

**Irati Calles**


Uztailearen 23an, 7 urte. Zorionak! Familiakoan partez.

**Itziar Agirre**

Abuztuaren 15ian, 45 urte. Zorionak! Familiakoan partez.

**Lorenzo Ariznabarreta eta Karmen Ormazabal**

60 urte ezkontuta irailaren 20an. Zorionak bikote! Jarraitu horren alai izaten. Familiaren partez!

**Sinfo Muñoz eta Satur Gil**

1968-2018 Urrezko Ezteiak. 50 urte ezkontuta abuztuaren 12an. Zorionak bikote! Segi horrela, jator-jator eta eder-eder. Familia guztiaren partetik.

Zoriontzeko, esker ona adierazteko, jaiotzen berri emateko...

**605 706 086**

(deitu edo bidali whatsapp-a)


**aldizkaria@piplean.eus**



JAIOBERRIAK



**Aiur Oñederra Espilla**  
Abuztuaren 17an jaio zen.



**Afrika Mendez Goigana**  
Uztailaren 19an jaio zen.



**Julen Aristi Sanchez**  
Irailaren 5ean jaio zen.

ESKELAK

OROITZA	
<p><b>German Rodriguez Martinez</b></p> 	
<p>2018ko uztailaren 14an hil zen, 76 urte zituela.</p>	
<p>Zuen saminarekin bat egiten dugu eta jaso ezazue gure doluminik sentikorrena.</p>	
<p><i>Plaentxi HLHI</i></p>	

II. URTEURRENA	
<p><b>Maria Urizar Murua</b></p>	
<p>2016ko irailaren 7an hil zen, 96 urte zituela.</p>	
<p>Gogoratzen zaitugun bitartean gure artean izango zara</p>	
<p><i>Etxekoak</i></p>	

OROITZA	
<p><b>Jose Vicente Santamaria Franco</b></p> 	
<p>2018ko uztailaren 10ean hil zen, 60 urte zituela.</p>	
<p>Zure lankidetzarekin gure langintza erreztu duzu; eskerrik asko Jose Vicente!</p>	
<p><i>Plaentxi HLHI</i></p>	

OROITZA	
<p><b>Itziar Aldazabal Irasuegi</b></p>	
<p>Itzi, abuztuaren 23an, 45 urte beteko zenituen. Joan zarenetik, ez dira pasatu bost minutu zurekin pentsatu barik egon garenik. Beti prest zeunden baserrira etorri eta lanean laguntzeko, onena zinen Itzi! Eskerrik asko hainbeste laguntzarren baserrian lanean. Egun eder asko pasatutakoak gara odolosteak eta txorixoak egiten, bedarretan, soinua eta panderoa jotzen. Barre ederrak botatakoak ere bai, elkarrekin. Onena zinen Aldasotik irrintzia egiten. Ez zaigu sekula ahaztuko.</p>	
<p><i>Aldasoko guztien partez, eta, batez ere, asko maite zaituen zure ahizparen partez.</i></p>	

## HILDAKOAK ETA JAIOTAKOAK

**Hildakoak**

Begoña Lete Arriola  
 Ezozia Unamuno Eguren  
 German Rodriguez Martinez  
 Juan Campos Guerra  
 Heraclia Maiztegi Mujika

**Jaiotakoak**

Julen Aristi Sanchez  
 Afrika Mendez Goyogana  
 Aiur Oñederra Espilla  
 Yanna Kaddouri Arias

## IRAGARKI LABURRAK

**Pisua salgai**

Lau logeladun pisua salgai Zubi  
 Nagusi ondoan. Etxeko gela guztiek  
 kanpo aldera jotzen dute.  
 Interesdunak, mesedez, deitu 643  
 700 867 mugikorrera.

## OROITZA

## Ezozi Unamuno Eguren

2018ko irailaren 3an hil zen, 64 urte zituela.


Elkarren lankide eta lagun izan gara horrenbeste urtean.  
 Ez zaitugu inoiz ahaztuko Ezozi.



*Kooperatibako lankideak*

## I. URTEURRENA

## Maite Narbaiza Azkue



2017ko irailaren 17an hil zen, 71 urte zituela.

Urte bat zu barik baina zure bizipoza, baikortasuna eta gurekiko  
 maitasuna gugan sentitzen dugu egunero

*Etxekoak*

Jarri zure oroitza edo  
 urteurreneko mezua  
 Pil-pilean aldizkarian

943 75 13 04  
 aldizkaria@pilpilean.eus



**Zu hemen zaude,  
AEK ere bai**

**Tú estás aquí,  
AEK también**



**EUSKARA-IKASTAROAK    CURSOS DE EUSKERA**

## **Soraluzeko AEK euskaltegia**

Euskalduntze orokorra (aurrez aurrekoa eta autoikaskuntza)

Ikastaro espezifikoak

B1/B2C1 maila (EGA)

ONLINE

### **Diru-laguntzak**

Eusko Jaurlaritza - Udal Beka